



Bergarako
Udala

BERGARAKO UDALA ETA MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO BEHIN BEHINEKO HITZARMENA

Bergaran, bi mila eta hogeitabateko urriaren 7an

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Bestetik, Iker Badiola Etxaburu jauna, Bergarako Musika Eskolako lehendakaria, Musika Eskolaren ordezkartzan.

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo

ADIERAZI DUTE

1. Bergarako Musika Eskola irabazteko asmorik gabeko elkarte dela.
2. Bergarako Musika Eskolak urte askotan zehar Bergarako ume, gazte eta helduei musika eta kantua ikasteko aukera eman diela, eta horrela hornitu ahal izan direla herriko musika talde eta abesbatzak; gainera herriko hainbat festa edo jaialditan parte hartzen duela eta horretan jarraitzeko asmoa duela.
3. Udalaren ustez, herritarrei zerbitzu hori eta hezkuntza musikala eta dantza ematea onuragarria dela eta horregatik diru-laguntza eman izan duela eta orain ere emateko prest dagoela, baina 2022ko aurrekontuak onartu arte ezin dela zehaztu zenbatekoa zein izango den. Musika Eskolari aurreratuko zaizkion 23.250€-ak 2021/2022 ikasturteko behin betiko diru-laguntzaren kontura joango dira.
4. Bi aldeek diru-laguntza hau behin behineko hitzarmen baten bitartez arautzea nahi dutela. Hitzarmen honek 2021eko urria eta Abendua bitarteko ordainketak arautzen ditu. 2022ko urtariletik abuztura bitarteko ordainketak, 2021/2022 ikasturteko behin betiko hitzarmenarekin batera udaleko 2022ko aurrekontuak onartutakoan zehaztuko dira.

Hori dela eta, ondorengo klausulak dituen kontratua hitzartu dute

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Musika Eskolak orain arte bezala herritarrei musika eta dantza ikasteko aukera emango die 2021/2022 ikasturtean.

Halaber, ondoren jasotakoa ere betetzeko konpromisoa hartzen du:

1. Udaletik beste diru-laguntzarik jaso gabe eta COVID19a dela eta administrazio desberdinetatik indarrean dauden neurriak betez ekitaldi hauetan parte hartuko du Musika Eskolak:

1.1.-Bergarako Musika Eskolako gazteen bandak ondorengo ekitaldietan parte hartuko du: San Martin jailetako haurren danborradan eta aratusteetako kalejiran.



Bergarako
Udala

1.2.-Bergarako Udalak antolatzen duen Udazken kulturalaren barne, Bergarako Musika Eskolako talde ezberdinek emanaldia eskainiko dute.

1.3.-Herriko talde ezberdinek eskaintzen duten Gabonetako kontzertuan Bergarako Musika Eskolak beharrezkoak diren antolaketa/bitartekaritza lanak egingo ditu.

1.4.-Bergarako Musika Eskolako talde ezberdinek udaberriko kontzertua eskainiko dute.

1.5.-"Apirilean Musika" egitaraua antolatuko du.

1.6.-Udalak eskatuta, honek antolatu dezakeen beste edozein ekitalditan parte hartuko du, aurrez elkarrekin adostuta.

2.- Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak entseguetarako orain arte izan duten lokala izango dute. Bertan dagoen materiala Udalarena dela aitortzen du Musika Eskolak (Musika eskolakoak diren bi kontrabaxu izan ezik).

Honen erabilerarako funtzionamendu arauak jarriko dituzte Musika Banda eta Musika Eskolaren artean, beti ere kontuan hartuz erabilera honetarako Musika Bandaren lehentasuna.

Dena den COVID19-aren larrialdi egoerak irauten duen bitartean Musika Banda eta Orkestra Sinfonikoak ez dute lokala erabiliko, baina udalak ulertzen duenean posible de la lokala erabiltzea, 7 egun lehenago abisatuta erabili ahal izango dute.

Txistulari Bandari ere entseguetarako gela bat utziko dio Musika Eskolak.

3.- Herritarrei edozein ekitaldiren berri emanez edo zerbitzu bat eskainiz propaganda egiten badu, Udalaren laguntza duela adieraziko du.

Halaber, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Gutxienez euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena gaztelarazkoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gaztelarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak hizkuntzaren aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).



Bergarako
Udala

BIGARRENA: Bergarako udalak 2021/22 ikasturteko diru-laguntzaren aurrerapen moduan; 2020ko urria, azaroa eta abenduan 23.250€ ordainduko dizkio Bergarako Musika Eskolari. Hilero, 7.750€ ordainduko dizkio Udalak Musika Eskolari.

HIRUGARRENA: Diru-laguntza kobratzeko Musika Eskolak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasuneko ordainketetan, egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak.

LAUGARRENA: Musika Eskola jakinean geratzen da eta onartzen du 2021/2022 ikasturtea bukatu eta gehienez 4 hilabetera (2022ko abendua baino lehen), aurreko ikasturteko gorabeherak eta hurrengorako asmoak jasotzen dituen txosten bat aurkeztu beharko diola Udalari, eta honekin batera urteko kontuak eta aurrekontuak. Kontuok hirugarren batek egindako auditoria izan beharko dute.

Halaber, Jasotako beste diru-laguntzen agiriak edo, diru-laguntzarik jaso ez bada, zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da.

Kontabilitateko dokumentazio guztia ikuskatu ahal izango du Udalak.

Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gorde beharko dituzte, gutxienez bost urtez.

Ikasturtean justifikatutako gastuak aurrekontuan aurreikusitakoak baino txikiagoak badira, diru-laguntza proportzio berdinean gutxituko da. Bergarako Musika Eskolak diferentzia itzuli egin beharko dio Udalari Udalak zehaztutako epean.

Egindako gastuak berriz, aurkeztutako aurrekontuan jasotakoak baino handiagoak badira, Udalak onartutakoa baino diru-laguntza gehiago ez du emango.

BOSTGARRENA: Udalak emango duen diru-laguntzaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan diru-laguntza ematen den jardueraren kostua baino.

SEIGARRENA: Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

ZAZPIGARRENA: Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Diru-laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

ZORTZIGARRENA: Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.



Begarako
Udala

BEDERATZIGARRENA: Kontratu honetan aurreikusita ez dagoen guztian, Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an hartutako 38/2003 Legea eta lege hori garatzen duen gainontzeko legedia aplikatuko da.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Begarako Alkatea

Gorka Artola Alberdi

**Begarako Musika Eskolako
Lehendakaria**

Iker Badiola Etxaburu